

KERSIA IBERICA S.L.U.

Miguel de Eguía poligonoa, Zarapuz kalea z.g.31,200, Lizarra



KERSIA IBERICA SLU instalazioa (helbidea: Miguel de Eguía poligonoa, Zarapuz kalea z.g., Lizarra) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan aurreikusten den jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikuluko horren 1. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Establezimenduaren jarduera

Garbiketarako eta higienarako produktuak egitea. - Xaboi arruntak, detergenteak eta lixibak fabrikatzea

Azken bisitaren eguna

2024ko irailak 24 asteartea

Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak

Kersia Iberica SLU enpresaren ekoizpen-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumeneko kaltegarriak daude. Establezimendutik kanpo eragina izanzen lukeen istripu larri baten kasurik kaltegarriena azido nitrikoaren isuriak lurrun toxikoa sortzea da. Pertsonen eragin dakizkiekeen kalteak toxikotasun akutuen ondoriozkoak dira, arnastuz gero, eta erredua larriak esposizio-bideetan. Establezimenduaren kanpoaldean badaude lurzorua/ura kutsatzeko beste kasu ez hain larri batzuk

Kontrolerako hartutako neurriak

Instalazioan honako neurri hauek hartu dira:

- Atxikitze askak
- Deposituaren mailaren kontrola eta neurgailuak. Depositua gehiagi betetzearen detekzioa, alarma seinalearekin
- Balbula motordunekin isolatu daitezkeen deposituak eta lineak
- Ekipamendu guztien lur-konexioa
- Suteen aurkako ur-harguneak
- Su-itzalgaiak instalazio osoan zehar.
- Larrialdiei aurre egiteko prestatutako esku-hartze taldea.

Instalazioetako substantzia arriskutsuak

Azido nitrikoa	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H272	Errekuntza azeleratzailea bizkortu dezake.
	H290	Metalentzat korrosiboa izan daiteke.
	H331	Toxikoa arnastuz gero.

Sodio hipokloritoa:	H400	Oso toxikoa organismo urtarrentzat
	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H318	Lesio larriak begietan.
	H290	Metalentzat korrosiboa izan daiteke.
	H335	Narritadura sor dezake arnasbideetan
	H410	Oso toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin.
	H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin
	H315	Larruazalaren narritadura eragiten du
	H319	Begietako narritadura larria eragiten du
	H412	Kaltegarria organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin

Lantegian istripu larrien bat eragin dezakeen ezbeharren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko.

Nola jokatu istripu larriak izanez gero

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezten. Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzeta.

Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak

- Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.
- Itxi itzazu atea eta leihoak, jaitsi pertsonak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.
- Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikituetan.
- Ez erabili aireztatze gailuak.
- Ekidin itzazu erakinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garajeak.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta gomendioa eta jarraibideei jarraitu

Urruntzeko eta babesteko jarraibideak

- Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.
- Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu eta itxi leihoak eta atea.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta agintariekin ematen dituzten gomendioa eta jarraibideei jarraitu.

Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 proteccioncivil@navarra.es

<http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion>